

Monseko pistak, estalita

Bukatu egin dituzte Monseko tenis eta padel pistak estaltzeko lanak. Hemendik aurrera, eu-riak eta haizeak ez die tenis eta padelzaleei en-barazu egingo.

Egun batetik bestera zabalduko dituzte Mons kiroldegiko tenis eta padel pistak. Pistok estaltzeko obrak maiatzean hasi ziren. Uztaila bukaera bitartean, lanak martxan ziren arren, bazegoen tenisean eta padelean jokatzeko. Abuztutik hona, baina, pistak itxita egon dira lanen ondorioz. Aipagarria da, hasieran aurreikusita ez zegoen arren, estalkiarekin batera, ikusleentzako harmaila ere jarri dutela kiroldegian.

Beste tenis pista bat

Gaur egun, hiru tenis pista eta beste hainbeste padel pista daude Monsen. Dena dela, udaberrian beste tenis pista bat jarriko dute. Monseko kiroldegiko kudeatzaile Internacional Kirol Elkartea tenisean binaka jende gutxi jokatzeko konturatu zen. Horregatik, egungo pistei binaka jokatzekeo marrak kenduz gero, beste bat egin zitekeela ondorioztatu zuen. Kirol elkartekoek zein udal teknikariek lau pistak dagoeneko prest egotea nahi zuten, baina ezinezkoa izan zaie. Izan ere, pistak lur zoruan margotzeko, pintura



Julimasene kalea aurrerantzean norabide bakarrekoa izango da.

Ikusleentzako harmaila egokitu dute

Kiroldegia amaituta

1996ko urtarrilean zabaldu zen Monseko areto-futbol kanxa. Urte horretan bertan, udaran, tenis pistak zabaldu zituzten eta 1997ko udaran padel pisten txanda iritsi zen. Handik bi urtera, squash aretoak eta gimnasioak zabaldu zituzten eta urte horretan bertan hasi ziren Internacional Kirol Elkarteko Udalan tenis eta padel pistak estaltzeko eskatzen. "Funtsezkoa zen guretzat pistak estaltzea, tenis eskolako haurrek euripean jarduten zutelako askotan. Estalitako pistekin, gainera, tenislari federatuek baldintza hobek izango dituzte entrenatzeko. Gipuzkoako kirol gune osatuenetakoa da gurea tenisean eta padelean jokatzeke", esan digu Internacional-eko kide Javier Donamariak.

berezi bat bota behar dute eta, pintura hori lehor dadin, 15 gradu inguruko temperatura eta euririk ez egitea beharrezkoa da. Neguan baldintza horiek izaten ez direnez, 2004ko maiatza aldera jartzea erabaki dute. Bien bitartean, orain arte bezala, teniszaleek hiru pistatan jokatu ahal izango dute.

Zirkulazio aldaketa

Lanen ondorioz, bestalde, kiroldegi aurrealdeko Julimasene kalea autoentzako itxita egon da. Errepidea zabatik dago berriro ere, baina zirkulazio aldaketa egin dute. Lehen, Julimasenek bi norabide zi-

tuen. Orain, ordea, autoak goraka baino ezin dira joan; beheantz joateko, Mons pasealekua hartu behar dute.

Pirata gaua

Larunbatean, hilak 20, jai herrikoien aldeko I. Pirata Gaua egingo dute gaztebaxean (Intxaurreondo kalean). 17.00etatik aurrera, film laburrak proiektatuko dituzte, antzerkia zein bakarrizketak izango dira, nahi adina mojito edan ahal izango da eta Harlax-ek, Lehiotikan-ek eta talde sorpresa batek kontzertua emango dute. Sarrerak sei euro ballo du.



**ALKANDORA
ARROPADENDA**

Andia 1 Tel.: 943 42 03 49 DONOSTIA

EL TURISTA

KIROL ETA BIDAIAERAKO
ARTIKULUAK

LEGAZPI, 6 • Tel.: 943 42 77 46